

bataz ⁷ esango neuque doloreac	
bacochic nembilela ⁸ illunetan,	10
dulcero nituala bidalquetan ⁹	
çugana quexaac ¹⁰ eta clamoreac,	
artu nenguianean ¹¹ colereac ¹²	
çure amorearren ¹³ penaceco.	
Podere baneucaique ¹⁴ tenplaceco	15

⁵ *cantaeta*: ‘kantu’; cf. *OEH* s.v. *kantaita*: “(G-nav). Ref.: *A Apend*; *Ond Bac*; *Iz Als*. “Canto, canción” *Ond Bac*. “*Kantaitak*, los cantos (?). *San Inaziyoa fan giñanin ee ekar genguzen kantaitak andi; an dee guetxin*” *Iz Als*”. Lazarragaren testuan, lau aldiz dago *cantaeta* hitza ‘kantu’ esanahiarekin: *aditu even cantaetaz etorrela odeietati figura eder bat* (AL: 1153r), *ençun even aen alderuç cantaetaz etocela guiçon baçu* (AL: 1154v), *Cegaiti beguiratu gura ez doçu / çugaiti nola nagoan cantaetaz?* (A17: 1-2), *edocein cantaeta trobaceco* (B20: 8).

⁶ *trobaceco*: ‘sortzeko, asmatzeko’; cf. *DAut*, s.v. *trovar*: “hacer versos”.

⁷ *bataz*: ‘alde batetik’; testuan ez dago gero esperoko genukeen *besteaz* edo antzekorik.

⁸ *doloreac / bacochic nembilela*: ‘dolorez, atsekabeturik nembilela’; *doloreak ... nembilela* egitura, hemen, *minak nago* erako egitura dukegu.
bacochic: ‘bakarrik’.

⁹ *bidalquetan*: ‘bidaltzen’.

¹⁰ *quexaac*: Mendebaldeko zenbait testu zaharretan (Kapanagarena eta Frai Bartolomerenak, kasurako) inesibo singularreko eta absolutibo pluraleko markak (*-an* eta *-ak*) izenari erabat asimilatu gabe geratzen dira. Lazarragaren eskuizkribuan ere hala gertatzen da kasu horietan, *-a* amaieradun hitzetako bokal bikoitzez salatzen dutenez: absolutibo pluralean *bervaac* (AL: 1143r, AL: 1153r), *donzellaac* (AL: 1143v), *erropaac* (AL: 1144v), *capaac* (A23: 53) eta *quexaac* (B20: 12) ditu eskuizkribuak; beste horrenbeste adibide ditu salbuespen direnak, ordea: *armac* (AL: 1153r, B30: 23), *ezpatac* (AL: 1153v), *bervac* (AL: 1154v), *coplac* (A8) eta *labradurac* (B33: 12). Ergatibo pluralean bi adibide konparagarri ditugu, *doncellac* (AL: 1154v) batetik eta *ayta-amaac* (A21: 11) bestetik. *canpaac* (A28: 57) salbuespen den ala ez ezin da ziur baieztatu, ez baitakigu oinarritzko forma *canpa* ala *canpaa* den (Landuccik *campae* dakar: “badajo de campana, *campae mia*”); *nescac* (B5: 25) ergatibo plurala bada, beste adibide monoptongo bat genuke bertan (ikus, hala ere, dagokion oharra). Inesiboari dagokionez, lau aldiz agertzen dira forma erabat asimilatuak: *conquistan* (AL: 1145v), *figuran* (AL: 1146r), *provincian* (AL: 1146v) eta *ausencian* (A27b: 6); asimilatu gabeko bokala duten adibideak, aldiz, hiru dira: *Domecaan* (A7: 107), *arcaan* (A24: 27) eta *plaçaan* (B5: 83).

¹¹ *artu nenguianean*: ‘hartu nindueanean’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

¹² *colereac*: ‘hirac, haserreak’; hemen ‘itsutasunak’.

¹³ *amorearren*: ‘amoreagatik’; *-arren* atzizkia lau bider aurkitu dugu eskuizkribuan, izenari gehituta, *-gatik* atzizkiaren baliokide: *amorearren* (AL: 1143v, A7: 89, B20: 14), *dirurren* (B15: 60). Aditz-izenari gehituta ere agertzen da, *-tearren*, *-etarren* eta *-t(z)erren* aldaeretan.

¹⁴ *baneucaique*: ‘oxala edukiko banu’; *eduki* aditzaren botiboa. Ematen du halakoak *eukaite-* formaren analogiaz eratutako adizkiak direla. Cf. Lazarragaren eskuizkribuan, *eucaiteco* (A28: 119), *ce beucaique* (A14: 57), *ce eucaiqueçu* (A27a: 24, A28: 155) eta *baneucaique* (B20: 15). Ikusi, orobat, Lcc “fiesta de guardar, *eguçari euchayteco*”. Bestalde, hainbat esaldi botibo aurkitu ditugu eskuizkribuan *ba-* aurrizkiarekin: *Ascotan, çu bacina pedernala, / edo ni sufriceco baninz achez!* (A17:

neure begui beraoen¹⁵ alboreac!¹⁶

Ni nax icen onegaz firmaetan:¹⁷

çurea içan nax; içan da¹⁸ içango;

çu nungo çarean, ni bere ango;¹⁹

eztot nic sobrenonbreau²⁰ mudaetan; 20

beti nax jaio azquero²¹ bilaetan²²

gaucea nola²³ al çaidan²⁴ contentadu;²⁵

ecertan nic baçaitut enojadu,

103-104), *Nic ayn on baneu bozau* (A17: 119), *Oraciotan beti nago: / osoac ayta jan balegui!* (A19: 39-40), *Podere baneucaique tenplaceco* (B20: 15), *Bacinaqui gogoa* (B28: 17).

¹⁵ *beraen*: ‘samurren’; cf. Lcc “blando, vera”.

¹⁶ *alboreac*: ‘argitasunak’, hemen ‘gehiegizko zuritasunak’. Cf. gaztelaniazko *albor* ‘goizaldeko argitasuna’.

¹⁷ *Ni nax icen onegaz firmaetan*: ‘nik sinaduran izen hau ezartzen dut’; *firmadu* aditzaren agerraldi jokatu bakarra da Lazarraga eskuizkribuan eta, testuko beste aditz asko bezala, iragangaitz gisa jokatzen da. Adierari buruz, cf. *DAut*, s.v. *firmarse*: “Atribuirse algún apellido, título u dictado, expresándole en la firma: y así se dice, Fulano se firma Pacheco por el Mayorazgo que posee, aunque su varonía es Mendoza”; orobat, aintzat hartu 20. lerroko *eztot nic sobrenombreau mudaetan*.

¹⁸ *da*: ‘eta’.

¹⁹ *ango*: Bost aldiz ageri da eskuizkribuan *non* galdetzailea leku-genitibo kasuarekin, funtzio predikatiboan; horietako lautan artikulurik gabe: *nungo direan esaten dave* (A1: 15), *Beguiratu бага çuc ni nor naxan, / salvo çu ceurori nungo çarean* (B3: 64-65), *Nungo çarean esadaçu* (B16: 31), *çu nungo çarean, ni bere ango* (B20: 19). Artikuluarekin behin ageri da, aditzaren ondotik den bakarrean: *Çu baçarade serbietan / jaquiten naxan nungoa* (B16: 91-92). Artikulurik gabeko erabilera hau gaur egun ekialdean baizik ez da entzuten. Funtzio predikatiboan beste hirutan baizik ez ditugu aurkitu *-ko / -go* leku-genitibodun sintagmak: *çu nungo çarean, ni bere ango* (B20: 19) artikulugabea, baina *ni banax Arabacoa* (B16: 95) eta *edoceynec gura leuque / angoa bere suyña* (B34: 3-4); berriz ere, forma artikuludunak perpausaren elementuen ordena hurrenkera kanonikotik aldentzen denean agertzen dira.

²⁰ *sobrenonbreau*: Erakusle ala artikulua interpretazioaren artean aukeratzea ez da erraza; hemen badirudi *nire sobrenonbrea* ordain egokia izan litekeela sintagmarentzat.

²¹ *jaio azquero*: ‘jaio nintzenetik’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoak adierazteko, nagusiki “erakuslea + instrumentala + *-quero*” eta “partizipio + *azquero*” egiturak erabiltzen dira. Hemen “partizipioa + *zquero*” dugu.

²² *bilaetan*: Lazarragaren testuan *bilatu* aditza iragangaitza da, agertzen den lau lekuetan: *beste amore bilatuco nax* (A4: 11), *Pensamentuac leucaela / doloz manteniduric, / remedioa bila citecen, / eurençat gora costaric* (A11: 31-34), *bila ce çatez besteric* (A27: 34) eta *beti nax jaio azquero bilaetan / gaucea nola al çaidan contentadu* (B20: 21-22).

²³ *nola*: Hemen *nola* erlatibozkoa da.

²⁴ *çaidan*: ‘zagidazan, zaitzadan’; *egin* aditz laguntzailea da, NORK-NOR “nik-zu”, bigarren pertsonari dagokion pluralgilerik gabe (cf. *çaut* vs. *çaidaz - çaitut*).

²⁵ *beti nax jaio azquero bilaetan / gaucea nola al çaidan contentadu*: ‘jaio naizenetik beti bilatzen dut zu nola poztu zaitzakedan’.

nagoçu²⁶ seculaco penaetan.²⁷

Bada bere,²⁸ dichaz desdichadua²⁹

25

jaio bide³⁰ ninçan ayn tenporatan³¹

ceinaz³² benturea³³ estaldu jatan,³⁴

seculaco nigaz despedidua.

Eneçat faltadu çan contentua,

²⁶ *nagoçu*: Irakur bedi *nagozu*, txistukari frikariarekin (eta ez **nagotzu*, afrikatuarekin). Eskuizkribuan sei aldiz aurkitu dugu *nagoçu*- (AL: 1139v, AL: 1152v, A16: 45, B3: 73, B3: 88, B20: 24) eta behin *egon* aditzaren NOR-NORI forma trinkoen sail honetako *gagoçu* (AL: 1147v). *Arrasateko Erreketan* (TAV 3.1.7) ere badago aditz hau: *Çaurietan curadu eta, / ama, nagoçu oera*. Beste guztietan, ‘nagokizu, egongo natzaizu’ esan nahi du, eta litekeena da hemen ere hala izatea, forma alokutiboan edo. Baina bada beste interpretazio posible bat ere: ‘egonaraz nazazu, jar nazazu’; kasu honetan, *egon* aditza iragankor gisa erabilirik izango genuke (cf. baita *ibili dut* ‘erabili dut’); bide batez, bigarren interpretazioak ondo azalduko luke *Arrasateko Erreketakoa* ere.

²⁷ *penaetan*: ‘penatzen’.

²⁸ *Bada bere*: ‘hala ere’.

²⁹ *dichaz desdichadua*: Lazarragaren eskuizkribuan, hiru esamolde antzeko aurkitu ditugu: *dichoso desdichaetan* (A17: 118), *desdichadua dichætan* (B16: 116) eta *dichaz desdichadua* (B20: 25). Gaztelaniaz Antonio de Guevararena ere esanguratsua da (*apud CORDE*): “Pues soy el príncipe de todo hombre atribulado, aunque quieres, no puedes escapar de mi señorío, porque si tú te quejas ser **desdichado en dichas**, yo me preçio ser **dichoso en desdichas**” (Fr. Antonio de Guevara, 1528, *Libro áureo de Marco Aurelio*).

³⁰ *bide*: ‘dirudienetz’; esanahi hau duen partikula ez da ohikoa mendebaldeko testuetan. Cf. *OEH*, s.v.: “2 **bide** (G, AN, L, BN, S, R ap. A; SP, Lar, *VocCB*, Dv, H). [...] De empleo general salvo en suletino; tampoco es frecuente en textos vizcaínos”. Baina Lazarragak eta Etxeparek *bide* partikula erabiltzen dute probabilitatearen adierazteko, trinkoekin zein perifrasiarekin: *Gauça sacona bide da, içan, / isaso ondarbaguea* (A24: 167-168), *jaio bide ninçan ayn tenporatan* (B20: 26); *çure pena dioçunoc nonbayt handi videytuçu* (Etx IX, 30), *Ene gogoa balyaqui mayte vide nynduque* (Etx V, 13).

³¹ *ayn tenporatan*: ‘hain momentuan, hain egunean, hain egun txarrean’. Eskuizkribuan beste bi aldiz dago honen antzekoa: *denporatan* (A19: 48), *tenporatan* (B4: 6). Baina horietan balio positiboa du, ziur aski gaztelaniazko *en tiempo* esamoldearekin erlazionatua; hemen, ordea, testuinguruaren arabera, balio negatiboa du.

³² *ceinaz*: ‘zeinean’; erlatibozko hau bi aldiz dago eskuizkribuan, bietan denbora adierazten duten izenekin: *ayn tenporatan / ceinaz* (B20: 26-27) eta *dichoso puntua ceinaz il ninçan* (B20: 44). *ceñetan*, ordea, behin dago, lekua adierazteko (A6: 46).

³³ *benturea*: ‘zorte ona’.

³⁴ *estaldu jatan*: ‘ezkutatu zitzaidan’; cf. Lcc “encubrir, *estaldu*”. Ohar paleografikoan azaldu den moduan, *estaldu* tatxaturik dago eskuizkribuan, eta *joaquij* idatzi da haren gainean. Hiru aukera ikusten ditugu testuko aldaketak ulertzeko: (1) *joaqui jatan* jarri nahi zuela pentsatzea, ezinezkoa ez den baina inon lekukotu ez den *joaki* aditzarekin (cf. *edun-eduki* : *joan-joaki*). (2) *joaquit* idatzi nahi zuela pentsatzea; orduan, *jatan* kenduta, bertso-lerroa hipometrikoa geratzen da. (3) Zentzuari begira, ematen du *estaldu joaquit*-en pentsatzen egon zitekeela, baina orduan errimarik ez litzateke. Hiru aukerak eskasak izanik, testuan bertsiotzat ematea erabaki dugu.

- eneçat faltadu çan aseguina, 30
 eneçat faltadu çan aleguina,
 eneçat faltadu çan esporçua.³⁵
- <1193v> Ene bearra³⁶ da, ezta çurea:
 neurc³⁷ confesacen dot au alaclara,³⁸
 cerren biur ez neçan³⁹ chaolara⁴⁰ 35
 neure begui luce ecusgurea.⁴¹
 Bada bere, dichoso⁴² tenporea,
 dichoso beguiac, dichoso oñac,
 dichoso burua, dichoso soñac,⁴³
 dichoso artu neben banderea. 40
- Dichoso eguna nox⁴⁴ galdu ninçan,
-
- ³⁵ *esporçua*: ‘adorea’; cf. *OEH*, s.v. *esportzu*: “Ánimo, fuerza, apoyo, consuelo”.
- ³⁶ *bearra*: ‘errua’; Lazarragaren eskuizkribuan, sei lekutan aurkitu dugu *bear* ‘erru’ (A16: 10, A27a: 22, B8: 8, B20: 33, B21: 36 eta B28: 6). Cf. *OEH*, s.v. *bear*: ““Culpa, *bearra*”, “culpar, *bearr egotzi*” Lcc. *Odol bearbagea, agirtuko da egia eurea*. “Sangre sin ser necesaria [traducción incorrecta por ‘sin culpa’] descubrir se ha la tu verdad”. *RS* 208. *Ez dauko Peru Garziak bearrik / Ain gatx andia apukadua gatik*. “No tuvo culpa”. *TAV* 3.1.5, 17s. *Gu nagitzen bagera, gurea da bearra edo kulpa*. *Mg CC* 189 (*CO* 284 *geuria izango da erruba*)”.
- ³⁷ *neurc*: ‘neuk’, izenordainaren forma zaharrea.
- ³⁸ *alaclara*: ‘argi eta garbi, ahoa betean’; gaztelaniazko *a la clara*.
- ³⁹ *biur ez neçan*: ‘ez nuen bihurtu, ez nuen itzuli’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.
- ⁴⁰ *chaolara*: ‘txabolara’, hemen ‘kaiolara’ adierazteko; maiteminduen errua da begia ez duelako bere gordelekura eraman, hots, ez duelako begia itxi eta, ondorioz, dama ikusi duenean, maitemindu delako. Corominasek (s.v. *chabola*) dioen bezala, euskal hitzaren jatorria frantses zaharreko *jaole* ‘kaiola’, ‘espetxe’ baldin bada, eskuizkribuko erabilera hau jatorrizko esanahitik hurbilago legoke. Bestalde, hau da *txa(b)ola* hitzaren lehenengo agerraldia, *OEH*ren arabera, baina ez du ‘kaiola’ adieraren pean ezartzen.
- ⁴¹ *ecusgurea*: ‘jakin-nahia, ikusnahia’; *ikusgura* adjektiboa ez da asko erabili XX. mendera arte, baina bada Urteren hiztegian (*apud OEH*): ““Oculi arguti, [...] *begi ikusgúrak, begi zorrótzak*” Urt II 309”.
- ⁴² *dichoso*: ‘zorioneko’. Predikatu moduan agertzen da behin eta berriro poema honetan *dichoso*, beti bere forma mugagabea, subjektua singularrean zein pluralean izan. Subjektuarekin egiten den komuntadura bakarra generoarena da, baina biziduna denean bakarrik: *dichosa çu laco arerioa* (B20: 54); izen bizigabeekin ez da hala gertatzen, cf. *dichoso artu neben banderea* (B20: 40), gaztelaniazko *bandera*, maileguaren iturria, femeninoa bada ere. Eskuizkribuan beste bitan agertzen da adjektibo mailegatu hau: *Neure buruau erraz daidit / nic dichosaçat edugui* (A7: 23-24) eta *asco da dichoso desdichaetan* (A17: 118); lehendabizikoan femeninoa den subjektuarekiko genero-komuntadura egiten du, eta bigarrenean predikatu moduan ageri da, mugagabea berriz ere.
- ⁴³ *soñac*: ‘sorbaldak’; cf. Lcc “ombro de hombre, *guiçonan soña*”.

ain gauça andia irabazteco;
 dichoso lutua sarri⁴⁵ jazteco;
 dichoso puntua ceinaz⁴⁶ il ninçan;
 dichoso vioça ceina jarri çan 45
 çuregan ayn ondo enclabada;
 dichoso ni laco⁴⁷ amoradua
 cegaiti gararrilean⁴⁸ jaio ninçan.

Dichoso çuregaiti ilten dana
 ni leguez bici dala⁴⁹ penaetan, 50
 determinadu бага rendietan⁵⁰
 çugaiti cruel dala⁵¹ beregana.⁵²
 Dichoso ni nolaco⁵³ capitana,
 dichosa çu laco⁵⁴ arerioa,
 dichoso ni laco artilleroa, 55
 cerren asesta neçan⁵⁵ çuregana.

⁴⁴ *nox*: Hemen *nox* erlatiboa da; ikus gorago *nola* 22. bertso-lerroan.

⁴⁵ *sarri*: ‘laster, berehala’; cf. *OEH*, s.v.: “*Tr.* Documentado en la tradición septentrional y en autores guipuzcoanos, de quienes no se encuentran ejs. en la segunda mitad del s. XX. Lo emplea tbn. el roncalés Hualde”.

⁴⁶ *ceinaz*: ‘zeinean’; ikusi 27. bertso-lerroko oharra, s.v. *ceinaz*.

⁴⁷ *ni laco*: Lazarragak absolutiboarekin erabiltzen du gehienetan *laco* konparatzailea, pertsona-izenordainaren ondotik (*çu laco*, *ni laco*...); baina badira bi agerraldi genitiboarekin ere: *çure laco* (A16: 37 oh. pal.), *çure lacooc* (B5: 19).

⁴⁸ *gararrilean*: ‘garagarrilean, uztailen’; cf. Lcc “julio mes, *gararilea*”.

⁴⁹ *bici dala*: ‘bizi delarik’; testu osoan *-la* atzizkia erabiltzen da moduzko perpausetan, perpaus nagusien osagarri zirkunstantzial gisa. Cf. *Doridoc eucan esporçu guztia galduric*, *ecin çan lurrera*, *utra negar asco bere beguietati eçarten ebela* (AL: 1152v); *alcar daraçagula besoetan* (A17: 96).

⁵⁰ *determinadu бага rendietan*: ‘etsitzera erabaki gabe’.

⁵¹ *dala*: ‘delarik’.

⁵² *beregana*: ‘bere buruarengana, bere buruarekiko’.

⁵³ *nolaco*: ‘bezalako’; *nola* konparatiboa oso ohikoa da tradizioan, Lazarragarenean bakarra aurkitu dugun arren (*bere criadu leialaz nola / a niçaz acordaduric* B21: 37-38); hemengoa bezalako izenlaguna, ordea, ez da hain ohikoa tradizioan ere: *OEH*ko adibide bakarrak Etxeparerenak dira, eta honen berdinak (NOLAKO (b), s.v. *nola*): “(Precedido de *ni*, *zu*...). Similar. v. BEZALAKO. *Neuretako eztazagut zu nolako amarik*. E 113. *Hi nolako ziradela* [hilak] *bizi ziren artian*. Ib. 15. *Ni nolakorik aski duzu*. Ib. 193”.

⁵⁴ *çu laco*: ‘zu bezalako’; ikusi 47. bertso-lerroko oharra.

ozpin-baracacetan⁶⁴ seculaco: 70
 ez deraustae⁶⁵ besteric ateraco,
 salvo⁶⁶ bay çaitudala amaetan.

O HAR PALEOGRAFIKOAK:

1193r Lehenengo lau ahapaldiak (1-32 bertso-lerroak) testu nagusiaren azpian idatzita daude. Lau ahapaldi horietan, bi tinta erabili dira: ilunagoa 1-12 eta 17-20 bertso-lerroak idazteko, eta argiagoa gainerakoa idazteko. Tinta argiak zenbakitu ditu ahapaldiak zenbaki arabiarrez, baina 17-24 bertso-lerroek osatzen duten ahapaldia zenbakitu gabe geratu da. **3** amoreac] aurrean letra bat-edo, agian *-t-*. **7** dodan buruan bena] lerro gainean. Lehenago *cein[bat dan ene plumea] liberala* jartzen zuen, baina taket artekoa tatxatuta dago, eta ordezkatuta. **8** edocein cantaeta trobaceco] azpian *tintez papelean trobaceco*, tatxatua. **11** bidalquetan] azpian *cantaetan*, tatxatuta. **23** ecertan] aurrean *çu*, tatxatua. **25** desdichadua] lehen ziurrenik *desdichaduau*; azken letra tatxatu edo zikindu da. **27** estaldu] *estaldu* tatxatu eta *joaquij* idatzi du haren gainean. **1193v** 33-56 bertso-lerroak eskuineko zutabearen azpian idatzi dira, zutabe horretako testu nagusiaren azpian. **35** cerren] aurrean letra bat tatxaturik, *b* ziurrenik. **40** artu neben banderea] azpian, tatxatua: *çure laco enpresea*. Esku beraren zuzenketa da. **52** cruel] azpian

(Kap 140), *Edandaysu oster*a (Mik 25), *Baçaquioz virtuteari beti jarraitu / santuçat laungoicoa ecussi daiçu* (Egiaren Kanta 190-91). Halere, Lazarragak lau aldiz baizik ez du egitura horretara jotzen testu osoan: *gugaz etorri nai badoçu / erraz daiçu ecusi* (A1: 1-2), *Jaun Cerucoa, nic errazoaz / beti çaidaz loadu* (A6: 11-12), *isasoorec horve guztiaz / beti çaguie laudatu* (A6: 15-16), *Alfer ifini naiçu purgaetan / ozpin-baracacetan seculaco: / ez deraustae besteric ateraco, / salvo bay çaitudala amaetan* (B20: 69-72).

⁶⁴ *ozpin-baracacetan*: ‘ozpin-berakatzetan’; cf. *OEH*, s.v. *berakatz*: “La forma *barakatz*, aunque es la primera que se documenta (en Landucci), no se encuentra en los textos”.

Badakigu XVI. mendean purgatzaille gisa erabiltzen zela *ozpin-berakatz*a, sabeleko gaixotasunak sendatzeko. Hona hemen adibide bat (Izengabea, c. 1500, *Libro de recetas*): “Para matar este gusano & sanar desta enfermedad el que la touiere. tome quatro o çinco ajos en ayunas sin pan mascados & beua vn poco de vinagre quanto copiere en la mano e faga esto quatro o çinco mannanas vna en pos de otra e pasaran los ajos & el vinagre por donde esta el gusano & comera dello & morira & sera sano luego el home” (*apud CORDE*).

⁶⁵ *deraustae*: ‘didate’; **eradutsi* aditza lau aldiz agertzen da Lazarragaren testuan, beti laguntzaile gisa. Horietatik bitan (A24: 11 eta B20: 71) aplikatibotasuna adierazteko erabiltzen da, hots, laguntzaile hirupertsonal arrunta da (*eutsi*, **eradun*, **i*-ren parekoa). Beste bitan (AL: 1145v eta A27: 5) kausatibotasunaren adierazteko erabiltzen da; gisa horretako kausatibozko formak ezezagunak ziren Lazarragaren testua agertu arte, baina iduri luke erabilera zabala zutela Arabako euskara zaharrean, Lazarragak indikatibotik kanpo ere kausatibotasuna laguntzailean markatzen baitu, *egin*-en ordeztan *eragin* erabiliz (*galdu lerait* A24: 157).

⁶⁶ *salvo*: ‘salbu, izan ezik’; eskuizkribuan bost bider agertzen da *salvo* hitza, eta horietarik hemen bakarrik dugu ohiko adiera. Gainerako lau agerraldietan ‘baizik (eta)’ esan nahi du.

gogor, tatxatuta. **55** artilleroa] esk. *arrilleroa*. **1194v** 57-72 bertso-lerroak testu nagusiaren azpian idatzita daude; 57-64 bertso-lerroak eskuineko zutabea idatzi dira, eta 65-72 bertso-lerroak ezkerrekoan. Horrek nahasmena sorrarazi dio ahapaldiak zenbakitu dituenari, eta alderantzizko hurrenkeran zenbakitu ditu hasieran; gero zenbakiak tatxatu eta zuzendu du. **66** eguiçu] -çu lerro gainean idatzita. **70** seculaco] aurrean *oguei*, tatxatua. **71** ateraco] azpian hitz bat dago tatxaturik; *erasango* agian.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B20 – Ain on emun baleust cantaceco...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago